

c) Familiekin elkarreraginean aritzea. Familiak informatzea eta inplikatzea

1. maila: Oinarrizkoa

Ez ditu ikastetxeko araudiaren arabera egin beharko lituzkeen elkarrizketak egiten familiekin.

Prestutasun gutxi erakusten du familiak artatzeko, informatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan txertatzeko.

Informazio gutxi ematen du irakaskuntza-programari buruz. Ez du uste familiak bera ezagutzea beharrezkoa denik.

Familiekiko harremanak eta komunikazioak ez dute ikasleen hezkuntza-prozesuan beharrezkoa den koordinazioa errazten.

Informazio gutxi eta desegokia jasotzen du ikasleak hobeto ezagutzeko.

Familien kezkei ez die erantzuten, eta erantzuten badu, sentikortasun gutxi erakusten du.

2. maila: Garatze bidean

Maiz ematen die informazioa familiei hezkuntza-programari buruz.

Irakasgai guztietako prozeduren, tresnen, ebaluazio-irizpideen, gutxieneko ikaskuntza-estandarren eta kalifikazio-irizpideen berri ematen du.

Elkarrizketak antolatzen ditu familiekin beren seme-alaben aurrerapenen edo zailtasunen berri emateko, ikasleak ezagutzeko, ekintzak birplanteatzeko eta gurasoen laguntza eskatzeko, eta iradokizunak egiten dizkie seme-alaben ikaskuntzan lagundu dezaten.

3. maila: Garatua

Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain...

Eraginkortasunez planifikatzen ditu bilerak, eta komunikazioa maizkoa eta arina da.

Zehaztasunez eta modu egokian ematen du ikastetxearen programa orokorren eta egiten diren jardueren zentzu pedagogikoaren berri.

Estrategiak erabiltzen ditu familiek beren seme-alaben hezkuntzan eta ikastetxeko bizitzan parte hartu eta kooperatu dezaten.

Jarrera irekia du iritzi eta iradokizunetikiko.

4. maila: Aurreratua

Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain...

Familien kezkei erantzuten die, eta sarritan ahalegintzen eta lortzen du familiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzea.

Ikasleek eta familiek uste osoa dute harenagan, eta estimatzen dute haren konpetentzia profesionala, alderdi akademiko zein pertsonalean.

Familiak ikastetxeko jardueretan inplikatzekeo jarduketa-planak dinamizatzen ditu.